

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1970

AGINDUA, 2020ko maiatzaren 6koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskadiko Kirol Federazioen 2020ko kirol-programetarako aurkeztutako dirulaguntza-eskaerak ebazten dituena.

AURREKARIAK

1.– Ondorengo lege-xedapen hauetan ezarritakoaren babesean aurkeztutako eskaerak ikusi dira: Euskadiko kirol federazioetarako kirol programen gaineko dirulaguntzak emateko modua arautzen duen abenduaren 26ko 287/2000 Dekretua eta Euskadiko Kirol Federazioen 2020ko kirol-programetarako dirulaguntzak emateko modua arautzen duen 2019ko abenduaren 26ko Agindua.

2.– Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2019ko abenduaren 26ko Agindua eta goian aipatutako dekretuaren 7.1 artikulua kontuan izanda, Kalifikazio Batzordea Gasteizen bildu zen 2020ko martxoaren 17an, eta aurkeztutako eskaeren gaineko ebazpen-proposamena egin zuen.

Horiek horrela, eta Kalifikazio Batzordeak egindako ebazpen-proposamena ikusirik, aipatutako dekretuak 7.2 artikuluan ematen zaidan ahalmena erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean jasota dauden Euskadiko Federazioei dirulaguntzak ematea; bertan zehazten dira kopuruak. Urteko gehieneko dirulaguntzak dira kopuru horiek, hau da, horren barruan direla ulertuko da lehen aipaturiko dekretuaren 5. artikulua ordaintzeko moduari buruz ezarritakoari jarraituz 2020. urteko dirulaguntzaren kontura federazioek alde aurretik jaso dituzten diru-kopuruak. Aipatutako dirulaguntzak finantzatzeko, guztira 2.475.000 euro bideratu dira.

Bigarrena.– Aipatutako aginduaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskadiko Kirol Federazioen kirol-programak finantzatzeko dirulaguntzak aldi bakarrean ordainduko dira. Horretarako, emandako dirulaguntza osoari alde aurretik emandako kopuruak kendu ondoren geratzen den kopurua ordainduko da, betiere alde aurretik emandako diru kopuruak justifikatu ondoren.

Hirugarrena.– Dirulaguntzaren bat jaso duten federazioek diru hori 2019ko abenduaren 26ko Aginduan eta dirulaguntza emateko ebazpenean zehaztutako helburuetarako erabili dela egiaztatu eta justifikatu behar dute 2021eko otsailaren 28a baino lehenago. Horretarako, ondoren jasotzen diren agiriak aurkeztuko dituzte:

a) Jarduera gauzatzeari buruzko memoria laburtuta, zeinetan, gutxienez, jasotzen baitira agindu honetan baloratuko diren gaiak, datu guztiak sexuaren arabera bereizita dituela.

b) Batzar Nagusiak onartutako 2020ko aurrekontuaren likidazioa (VI. eranskina).

c) Fakturen bidez eta zuzenbide- eta merkataritza-zirkulazioan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-efkazia duten gainerako agirien bidez egiaztatuko dira gastuak. Faktura elektronikoen

bidez ere egiaztatu ahal izango dira gastuak, baldin eta zerga-arloan onartuak izateko betekizunak betetzen badituzte, betiere.

Faktura eta dokumentu guztiak espedientera igo behar dira.

Aurkezten diren fakturak dirulaguntzan emandako kopurua justifikatu behar dute.

d) Helburu bererako emandako beste laguntza ororen zerrenda, eskabideak aurkezteko unean haren eraginkortasunaren berri izan ez bada.

e) Eskabidea bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko konpromisoarekin batera aurkeztu duten federazioen kasuan, erabilera hori egiaztatzen duten sortutako agirien aleak.

f) Federazioko idazkariak egindako ziurtagiria eta lehendakariak sinatua, federazioaren dokumentazio ekonomiko hau jasotzen duena:

1.– Balantzea 2020ko abenduaren 31n.

2.– Diruzaintza garbia 2020ko abenduaren 31n.

3.– Finantza-erakundeekiko zorrak 2020ko abenduaren 31n.

4.– Azken bi ekitaldietako mozkin eta galeren kontua.

g) Federazio-lizentzien guztizko kopurua 2020ko abenduaren 31n.

Laugarrena.– Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, Jarduera Fisikoko eta Kiroleko zuzendariak dagokion likidazio-ebazpena emango du, eta, hala badagokio, dagoeneko ordaindu den baina itzuli egin behar den zenbatekoa adieraziko du, betiere bat etorrita Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin.

Bosgarrena.– Dirulaguntzaren baldintzak ez betetzea:

a) Jasotako dirulaguntza 287/2000 Dekretuan aurreikusitako jarduerak egiteko barik, beste batzuk egiteko erabiltzea.

b) Emandako dirulaguntza ez justifikatzea.

c) Aurkeztutako eskaeran edo dokumentazioan jasotako edozein datu egiazkoa ez izatea.

d) Kirol Federazioak ez jakinaraztea Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari kirol programak egiteko beste laguntza batzuk jaso dituela.

e) Bestelakoren bat, baldin eta ezargarri den bestelako xedapenen batean ezarritakoaren aurka badao.

Egiaztatzen bada ez dela bete dirulaguntza ematea ebazteko kontuan izan ziren baldintzaren bat, jasotako diru kopurua eta dagozkion legezko interesak itzuli beharko zaizkio Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari, bai azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, bai abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak ezartzen duenaren arabera eta modu-moduan.

Seigarrena.– Honako ebazpen hau interesdun bakoitzari jakinaraziko zaio.

Zazpigarrena.– Dirulaguntza guztiak eta onuradunak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira.

2020ko maiatzaren 13a, asteazkena

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, beronen aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 6a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2020ko maiatzaren 13a, asteazkena

ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

	Federazioa	IFK	2020ko dirulaguntza (eurotan)	Emandakoa (eurotan)	Eman beharrekoa (eurotan)
1	Euskadiko Ur-Azpiko Jardueretako Federazioa	G-48547871	36.603,77	18.118,28	18.485,49
2	Euskal Xake Federakuntza	G-20155792	31.809,63	15.805,69	16.003,94
3	Euskadiko Atletismo Federazioa	G-20146098	110.000,00	53.667,97	56.332,03
4	Euskadiko Automobilismo Federazioa	G-01037563	35.183,36	17.323,31	17.860,05
5	Euskadiko Badminton Federazioa	G-20383782	26.231,60	13.070,69	13.160,91
6	Euskadiko Saskibaloia Federazioa	G-01037175	143.740,39	71.517,44	72.222,95
7	Euskadiko Eskubaloia Federazioa	G-20139150	104.586,01	52.127,64	52.458,37
8	Euskadiko Beisbol eta Sofbol Federazioa	G-20447744	19.900,00	9.950,00	9.950,00
9	Euskadiko Bolo Federazioa	G-01036441	15.000,00	6.966,68	8.033,32
10	Euskadiko Boxeo Federazioa	G-01104009	23.774,41	11.831,57	11.942,84
11	Euskadiko Ehiza Federazioa	G-48261465	24.500,00	12.231,60	12.268,40
12	Euskadiko Txirrindularitza Federazioa	G-20157871	142.052,74	70.858,71	71.194,03
13	Egokitutako Kirolen Euskadiko Federazioa	G-01365683	105.008,16	52.465,68	52.542,48
14	Euskadiko Aire-Kiroletako Federazioa	G-20193454	12.950,00	6.475,00	6.475,00
15	Euskadiko Negu-Kiroletako Federazioa	V-48196133	59.545,20	29.700,13	29.845,07
16	Euskadiko Esgrima Federazioa (EKFB) _{a)}	G-20791596	4.000,00	1.600,00	2.400,00
17	Euskadiko Futbol Federazioa	G-48534846	153.666,24	75.754,35	77.911,89
18	Euskadiko Gimnastika Federazioa	G-01045822	46.807,45	21.877,77	24.929,68
19	Euskadiko Golf Federazioa	G-20139176	38.829,13	18.459,62	20.369,51
20	Euskadiko Halterofilia Federazioa	G-20170346	20.779,25	10.353,48	10.425,77
21	Euskadiko Zaldiketa Federazioa	V-48195887	21.974,93	10.987,47	10.987,46
22	Euskadiko Hockey Federazioa	G-20150603	43.928,21	21.431,89	22.496,32
23	Euskadiko Judo Federazioa	G-20171302	46.663,84	23.282,65	23.381,19
24	Euskadiko Herri Kirolen Federazioa	G-48267025	59.738,43	29.034,97	30.703,46
25	Euskadiko Karate Federazioa	G-48418453	33.819,01	16.070,84	17.748,17
26	Euskadiko Borroka eta Sambo Federazioa	G-48200802	24.000,00	12.000,00	12.000,00
27	Euskadiko Mendizale Federazioa	G-20126447	110.000,00	54.467,30	55.532,70
28	Euskadiko Motoziklismo Federazioa	G-20147088	27.000,00	13.495,85	13.504,15
29	Euskadiko Igeriketa Federazioa	G-48257026	75.000,00	37.296,28	37.703,72
30	Euskadiko Padel Federazioa	G-01426485	24.841,47	12.365,26	12.476,21
31	Euskadiko Irristaketa Federazioa	G-48196067	51.000,00	25.062,96	25.937,04
32	Euskadiko Euskal Pilota Federazioa	G-20129326	108.481,84	54.359,62	54.122,22
33	Arrantza eta Kasting Euskal Federakuntza	G-20214854	18.000,00	8.894,30	9.105,70

2020ko maiatzaren 13a, asteazkena

	Federazioa	IFK	2020ko dirulaguntza (eurotan)	Emandakoa (eurotan)	Eman beharrekoa (eurotan)
34	Euskadiko Petanka Federazioa	G-01153543	8.964,53	4.435,73	4.528,80
35	Euskadiko Piraguismo Federazioa	G-20150744	78.000,00	38.025,53	39.974,47
36	Euskadiko Arraun Federazioa	G-20110292	108.973,29	54.317,55	54.655,74
37	Euskadiko Errugbi Federazioa	G-20134607	125.904,06	62.742,96	63.161,10
38	Euskadiko Squash Federazioa (EKFB) ^{a)}	G-20791596	6.910,59	3.090,05	3.820,54
39	Euskadiko Surf Federazioa	G-20315271	68.889,32	33.603,92	35.285,40
40	Euskadiko Taekwondo Federazioa	G-48401780	28.100,00	13.680,85	14.419,15
41	Euskadiko Tenis Federazioa	G-48198576	60.496,27	29.986,27	30.510,00
42	Euskadiko Mahai-Tenis Federazioa	G-48460042	18.611,81	8.934,94	9.676,87
43	Euskadiko Arku-Jaurtiketako Federazioa	G-48282792	11.099,37	5.430,45	5.668,92
44	Euskadiko Tiro Olinpiarreko Federazioa	G-01039908	25.768,97	12.801,82	12.967,15
45	Euskadiko Triathoi Federazioa	G-20473773	37.532,10	18.721,77	18.810,33
46	Euskadiko Bela Federazioa	G-20139903	64.416,36	31.911,56	32.504,80
47	Euskadiko Boleibol Federazioa	G-01036508	31.918,26	15.911,71	16.006,55
	Guztira		2.475.000,00	1.222.499,91	1.252.500,09

a) Euskal Kirol Federazioen Batasuna (EKFB) gaitzen duena Euskadiko Esgrima Federazioaren eta Euskadiko Squash Federazioaren eginkizun publiko delegatuak betetzeko.